
SEXUALITATEA

Beharrezkoa den diagnostikoa burutzeko oinarrizko apunteak

Diagnosiarekin hasi aurretik esan beharra dugu ikerketa honen helburua sexualitatearen inguruko ikuspuntu zabalago bat eskaintzea dela, aldi berean erreflexiorako aukera emanez. Honen bidez sexualitateari buruzko ikuspegi zabalago bat eskaintzea da gure nahia.

Plazerrak debekatzen dira

Aspalditik, zoritzarrez, bizitzaz gozaten debekatzen duen gizarte eta mundu batean bizi gara. Baieztapen hau hasieran apur bat esageratua dela dirudien arren azterketa edo behaketa txiki baten laguntzaz argi ikus dezakegu ez dela horrela.

Gaiarekin hasi aurretik, irakurlea hobe kokatzeko, gure gizarteari buruzko datu orokor batzuk kontutan hartzea ondo legoke:

- Azkeneko 150 urteetan gure gizarteak azkeneko 4000 urteetan baino gehiago "garatu" da.
- Gaur eguneko ekoizpen sistemak ekoizpenaren, komertzioaren, produktuen eta diruaren inguruan mugitzen diren bizi baldintzak sortu ditu.
- Bizi baldintza hauek pertsonak ekoizpen katearen beste pieza bat balira bezala hartzen ditu.
- Pertsonen oinarrizko beharren asebetetzea erlatiboa da.
- Pertsonak daukaten denbora libre gero eta urriagoa edo txikiagoa da, ekoizpenari gero eta denbora gehiago eskaintzen zaiolako.
- Denbora libreaz "disfrutatze" edo gozatzeko modua ere gero eta kontsumitzaileagoa da, merkatuko beste negozio baten modura hartzen da.

Gizarteak garatu beharra dauka, baina garatu aipatzen dugunean zera adierazteko erabiltzen dugu: gutxiago lan eginez, edo lanaren esklabo izan gabe, hobe eta duintasunez bizitzea. Bizitza duin hori lortuta pertsonak bizitzako plazeretaz gozatzeko aukera izango lukete, plazera ez bakarrik bere oinarrizko beharrak hasetuta, baizik eta bizitzak eskaintzen dizkigun plazer ezberdinez eta orokorrean disfrutatze aukera modura.

Dirudiena baino zabalagoa den gaia

Bizitzaren plazeretaz hitz egiten dugunean bere sentzu zabalean egiten dugu, bertan sexualitatea ere kokatzen dugularik. Baian sexualitatera zerbait orokorra edo zabala izango balitz bezala kontutan hartu behar dugu. Gauzak modu partzial edo mugatu

batean ikustera ohitu gaituztenez are mugatua da sexualitate hitzarekin ulertzen duguna. Kontzeptuaren inguruko mugaketa honek arrazoi ezberdinak dauzka: moralak, etika, gizartea, kultura eta historia.

Sexualitate hitzak, sexualitate hitzarekin normalean ulertzen duguna adierazteaz aparte- sarketara mugatutako harreman edo erlazio sexualak, ugalketa sexuala eta harreman sexualarekin kutsatutako gaixotasun sexualak- esanahi zabalagoa dauka. Horregatik gai honi buruz hitz egiten dugunean argi gelditu behar den lehenengo gauzatariko bat da, sexualitateak gauza asko adierazten dituela alegia.

Sexualitateak pertsonen arteko harreman edo erlazio guztiak adierazten ditu, jaiotzen garenetik hil artekoak; bai sentsu afektiboan, bai sentimentalean zein plazerrari dagokionean. Adierazpen sexual honen barruan, tartean aurki daitezkeen, ahozko hizkuntza eta keinu bidezkoa ere sartu dezakegu.

Dimentsio zabal honek sexualitatearen kontzeptu eta garapen praktikoari garrantzi handia ematen dio, azken finean pertsonak dauzkaten ondorengo ezaugarriekin lotuta baitago: garapen pertsonala, egoera animikoa, hizkuntza, jakintza, esperientzia edo bizipenak eta gizartearen garapena.

Gure helburua ondorengoa izango litzateke: sexualitate kontzeptuaren erabilera eta bere erabilera pertsonal zein kolektiboa gizartearen onerako.

Behin eta berriro jartzen den muga

Gaur egun sexualitate kontzeptua erabiltzen dugunean beste modu batean erabiltzen dugu. Arrazoi sozial, kultural, politiko, ekonomiko eta moralak direla eta sexualitatea, kontzeptu zein erabilera mailan, muga asko aurkitzen ditu pertsonen bizitzan, behin eta berriro. Beraz, gure ongizate kolektiboa hobetzeko balio beharko lukeen kontzeptua eta praktika mugatua aurkitzen da, bere izaera edo esanahia eraldatzen duten kontzeptuak nagusi atereaz eta erabiliz.

Jaiotzen garenetik gure beharrak asetzeko joera daukagu, behar hauen artean afektua, maitasuna eta nahi sexuala sartu ditzakegu. Txikiak garenean pertsonok ez dugu inolako aurreiritzirik, ezta taburik ere, naturalak gara et gauzak normaltasunez hartzen ditugu. Gizarteak erakusten edo ezartzen dizkigu tabu eta aurreiritzi hauek, "arau moral" izendatuz, elkarbizitza "normal" baten aitzakiarekin. Txikitatik erakusten zaigu zer egin dezakegun edo zer egin behar dugun, depurazio baten bidez kontzeptu eta jarrera zehatzak ezartzen zaizkigu. Honekin batera gizartean izango ditugun rol zehatzak ezartzen zaizkigu, generoaren arabera markatutako ezberdintasun eta diskriminazioan oinarrituak Bereizketa hauek sexualitatean ere nabaritu dira.

Kontutan eduki behar dugu pertsonaren izaeraren gehiengoa 0 eta 6 urte artean garatzen dela, adin tarte hauetan bizitako esperientziekin, eta noski, adin tarte honetan izandako esperientzia sexuarekin eragina izango dute izaeran emango den garapen sexuarekin.

Geroko urteetan sexualitatean ematen den garapena mugatuagoa da, esperimentazio sexualeko momentuak urriagoak direlako eta beraz ez dago garapen sexual baterako aukerarik.

“Ikasketa” bideak

Aurretik aipatu bezala 6 urtetatik aurrera haurrak daukan esperimentazio sexuala mugatuagoa da, mugaketa honek arrazoi ezberdinak dauzka eta hainbat bide eta modutan burutzen da.

Sexualitatean ematen den mugaketaren ikasketa azaltzea zaila dela aitortzen dugun arren mugaketa hau burutzeko bideak edo moduak aipa daitezke, bakoitza modu eta maila ezberdinean eragiten du pertsonengan eta batzutan beraien artean elkarlotuta egon daitezke:

- Familia
- Hezkuntza sistema
- Morala (elizak ezarritakoa)
- Komunikabideak
- Estatua

“Konpondu gabeko” satisfazioa

Mugaketaren ondorioz sexualitatea ez da askatasunez bizi edo disfrutatzen, jendeak ez du behar bezala garatzen hitz honek adierazi nahi duena, ezta berau erabiltzen denean edo praktikatzean ere. Ondorioz pertsonaren behar sexualak ez dira asetzen, hau argi ikus daiteke arazo psikologiko sexualak dituzten pertsonen egoera aztertzen badugu.

Sexuaren komertzioa

Milaka pertsonak beren nahi sexuala bete ez daukatela onartu beharra dago, izan ere psikologo batengana joan beharko ez luketen pertsona asko daude, horrela argiago uler dezakegularik komertzio sexualak daukan hedadura maila zergatik den hainbestearainokoa.

Honekin batera ildoan beste gai bat, bere azterketa propioa beharko lukeena, milioi pila mugitzen duen industriari emakumeari ematen zaion paperarena da; baita jarrerara honek gizartean daukan eragin psikologiko, sozial eta kulturala ere.

Beharrezkoa ez den tabua

Sexualitateak duen gaitasun askatzaile eta onetik mundu ilun bat sortu da. Honen ondorioz, gaur egun, sexualitatea lotsaz ezkutatua daramagu eta agerian gera daitekeena

tabu modura hartzen da. Zergatik ezkutatu behar da normaltasunez landu eta bizi beharko litzatekeen gai natural bat? Zergatik ezkututzen dugu sexualitatearen pertsona guztiok behera dugunean eta bilatzen badugu?

Galdera hauei eman dakizkiokeen erantzunak ugariak dira baina esan dezakegu arrazoiak edo eragileak ezberdinak direla, gai ezberdinekin lotura izanik: kultura, morala, gizartea, politika eta ekonomia.

Gazteriaren berezitasuna

Gazteriaren inguruko diagnostiko bat egiten ahalegintzen baldin bagara argi eduki behar dugu errealitate konkretuek beren berezitasunak dituztela. Gazteen errealitateak, edozein gaitan, ezaugarri zehatzak ditu, baita sexualitatearen kasuan ere. Gazteriaren errealitatea adin horretan ematen diren aldaketek markatua dator, zeinetan pertsonak alor guztietan aldaketak jasaten dituen, pertsonalenetik hasita: gorputzaren aldaketa, kontzientziaren garapena, garunaren garapena... Aldaketa pertsonalekin batera orokorragoak diren beste aldaketa batzuk agertzen dira: inguruarenak, kulturalak, hezkuntzarenak...

Bizitzako garai honetan ematen diren aldaketak bi eragile edo arrazoi dauzkate: milaka gauza berri eta ezberdinen aurkikuntza alor guztietan, hainbat gauzen inguruan lehen zeukan ikuspuntua aldatzera eramaten duena; eta pertsona independentea dela konturatzea, bere erabakiak, hausnarketak eta ekintzak hartu ditzakeela konturatzearekin batera datorrena.

Aipatutako bi aldaketak eta orain bizi duen guztia haurtzaroan lortutako izaera oinarriari elkartzeko zaizkio eta kontzientzia birmoldaketa bat ematen da. Pertsonaren izaeraren formakuntzaren fase garrantzitsu bat da hau.

Momentu honetan kokatu behar ditugu gazteen formakuntza, garapen eta praktika sexualak. Nolabait, puntu honetan faktore batzuen eragina nabarmena izanik: famili hezkuntza, eskolako hezkuntza, morala eta komunikabideen eragina.

Datu eta irizpideen falta

Leku zehatz bati buruzko diagnostikoa egiterakoan toki horretako ezaugarri bereziak errespetatu behar dira. Gure kasuan Euskal Herriko gazteriari buruzko datu errealik ez daukagula esan behar dugu. Gure artean izan ditzakegun datu apurrek bi arazo dauzkate: lurraldetasunarena, Euskal Herriko eremu batzuk bakarrik aztertzen dituztelako; eta azterketarako erabilitako ikuspuntuarena.

Gure esku artean dauden azterketak Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako gazteriari buruzko azterketa partzialak dira, batez ere preserbatiboaren erabilerari edo gaixotasun sexuali buruzkoak dira.

Aldaketa orokorrik gabe ez dago aldaketa sakonik

Garai, leku eta errealitate zehatz batean jaiotzen garela argi dago, baina horrek ez du esan nahi dauzkagun ezaugarri guztiak ondo egon behar direnik. Gure ustez sexualitateari buruzko errealitatea, kontzeptua eta praktika orokorra hoberantz egin lezake eta horrekin batera gizartearen bizi kalitatea hobetu.

Aldaketa hau ezin da egun batetik bestera burutu. Gizarte alor askotan eragingo lukeen aldaketa sakon bat beharko litzateke, beste gizarte aldaketa batzuekin batera joan beharko litzatekeena, izan ere beraiek gabe ezingo litzateke ezer aldatu.

Beraz, egun bizi dugun egoera ikusita zaila da aldaketa handiak ematea sexualitatearen alorrean, behintzat denbora labur batean.

Aldaketak burutu ahal izateko lan asko behar da

Gauzak orokorrean aldatzearen ezintasunaren aurrean eskala txikiagoko aldaketak egin daitezke. Aldaketa txiki hauen baturak, beste alor batzutan eman daitezkeen aldaketa txikiekin batera, aldaketa handiak ekarriko dituztenak izango dira.

Sexualitateari dagokionez konponbidea behar duen arazoa aurkitu beharko litzateke aldaketa zehatzak emateko, gero ikuspuntu zabalago eta globalago bat eskaintzeko.

Hasteko eskema posiblea bat

Hortaz diagnostiko bat egiterako orduan arazo ezberdinen aurrean aurkitzen gara, baina ez da ezinezkoa. Kuantifikatzeko zailak diren aspektu askori buruzko datu fidagarriak aurkitzen zaila izango litzateke, baina nolabaiteko hausnarketak egin daitezke azterketa txiki baten ondorioz.

Azterketa hori aurrera eramateko honako eskema proposatzen dugu:

1. AZTERTZEKO SUBJETUA
Euskal Herrian bizi diren 14-30 urte arteko pertsonak
2. AZTERTU BEHARREKO FAKTOREAK
Afektibitatea gazterian
Erlazio edo harreman sexualak
Informazio orokorra
Espektatiba sexualak
...
3. ZEHARKAKO FAKTOREAK
Generoaren araberako rolak
Emakumearen egoera
Familia, bere irudia

4. SEXUALITATEA GIZARTERATZEKO BIDEAK

Familia
Lagun taldea edo koadrila
Eskola
Osasun Zerbitzua
Komunikabideak
Gizartearen morala

5. AURKITU DAITEZKEEN ARAZOAK EDO OZTOPOAK

6. AURKITU DAITEZKEEN ARAZO EDO OZTOPOEI EMANDAKO IRTENBIDEAK

Lantzeko gai posible batzuk

Dena elkarlotua dago eta edozein arazok zeharkakoak edo zuzenak diren irtenbideak behar ditu. 30 eta 40. hamarkadetan Europako askatasun sexualaren aldeko mugimenduak behar izan zuen II. Mundu Gerraren ondorioz. 60-70. hamarkadetan mugimendua berrindartu zen, sexualitatea bizitzeko eta erlazionatzeko modu berrien alde zegoen jendeak osatua.

Gaur eguneko arazoak bestelakoak dira, adibidez: 18 urtetako gazte batek bere harreman sexualak askatasunez garatu ditzake gurasoengandiko independentzia ekonomikorik ez badauka?

Lan egiten hasteko gai asko eman daitezke, bakoitzak bere ingurua izanik aplikatzeko, aldarrikatzeko eta konpontzeko. Egia da askok elkarren arteko lotura dutela eta batzuk martxan jartzea gaztaroarekin lotuta daudela, baina beste batzuk ez, nahiz eta eragin zuzena eduki.

Kontzeptuaren osaketarekin erlazionatu edo harremanduak:

- Gurasoek jasotzen duten informazioa
- Eskolek jasotzen duten informazioa eta hau lantzeko moduak
- Instituzioetatik ematen diguten informazioa
- Komunikabideek ematen digutena informazioa
- ...

Alde praktikoaren garapenarekin erlazionatu edo harremanduak:

- Koadrila edo lagun artean sortutako erlazio edo harreman afektiboak
- Familiako harreman afektiboak
- Gazteen arteko harreman sexualak